

Kanalak:

IkasMag-en kasuan, kanal zuzenak eta kanal zeharkakoak konbinatzen ditugu, gure bezero nagusia hezkuntza-sarea denez, informazioa eta produktua modu eraginkorrean helarazteko.

1. KOMUNIKAZIO-KANALAK

Helburua da ikastetxeek eta hezkuntza-sektoreko eragileek IkasMag ezagutu eta balore-proposamena (segurtasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza) argi ulertzea.

Erabiliko ditugun kanalak:

- Ikastetxeekin harreman zuzena (bisita presentzialak, demo laburrak eta azalpen teknikoak).
- Online komunikazioa:
 - *Webgune propioa*: produktuaren informazioa, prezioa, argazkiak eta bideo demostrativoak.
 - *Sare sozialak*: Instagram, TikTok eta LinkedIn (hezkuntza eta jasangarritasuneko komunitateetara zuzenduta).
- Hezkuntza-feriak eta tokiko jardunaldiak, non gure produktua aurkeztuko dugu.
- Gasteizko Udalaren 2030 Agenda eta jasangarritasun-programen barruko parte-hartzea, gure produktuaren ingurumen-balioak hedatzeko.

2. BANAKETA-KANALAK

Banaketa-kanalek gure produktua bezeroarengana (ikastetxeetara) nola iristen den deskribatzen dute.

2.1. Kanal zuzenak

- Eskuzko entrega zuzena Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan: Guk geuk eramaten dugu materiala, banaketarik kontratatu gabe.
- Demo edo aurkezpenetako entregak: salmenta gauzatzen den unean bertan uzten denean.

2.2. Zeharkako Kanalak

Banaketa hauek dira gehien erabiltzen ditugunak, IkasMag-en kasuan.

Zeharkako kanal laburrak

- Materiala logistika-enpresa txiki edo autonomoei ematen diogu eta beraiek Gasteiztik kanpoko ikastetxeetara eramaten dute.

Zeharkako kanal luzeak

- Materiala logistika-enpresa bati (SEUR, MRW, GLS...) ematen diogu.

IkasMag → Handizkaria → Denda elkartua → Ikastetxea

IkasMag → Banatzaile nazionala → Tokiko denda → Ikastetxea

Hau beharrezkoa izango litzateke gure produktua estatu mailan edo herrialde gehiagotara zabaltzen bada eta bezero kopurua handitu nahi bada.

3. Salmenta-kanalak

3.1 Kanal propioak

- Salmenta zuzena ikastetxeei: gure taldeak aurkezpena, aurrekontua eta salmenta kudeatzen ditu.
- Online salmentak: webgunearen bidez ikastetxe edo banakako erosketak.
- Aurkezpen eta demo presentzialetan sortzen diren salmentak.

3.2 Kanal elkartuak

- Caype (banaketa eta salmenta).
- Gasteizko Udalaren hezkuntza eta jasangarritasun-programak, zeinen bidez gure produktua ikastetxeen eskura jartzen den (pilotaje edo gomendio bidez).